KIROLA HARD ENDUROKO ESPAINIAKOA, JOSU ARTOLARENTZAT // 7

ataria

OSTEGUNA
2021/12/09
9. urtea, 1.519. zenbakia
107.6 fm
Ataria.eus
URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 83 €

«Bizirik dagoen herri batean beti dago zer kontatua»

Eskualdeko bost herritan argitaratzen dituzte urtekariak, Altzon, Berrobin, Lizartzan, Berastegin eta Alkizan; bizilagunek gogotsu jasotzen dituzte mimoz prestatutako aldizkariak // 2-3

IRATI SAIZAR ARTOLA

ELKARTASUNA
IRITSI DIRA KANPALEKUETARA

Egunak eman dituzte bidaian, errepidean horietako asko, baina atzo iritsi ziren Tinduf saharar errefuxiatuen kanpalekuetara; eramandako material eta ibilgailuak banatzen emango dituzte datozen egunak // 5

«Igandean futbol zelaiaren ondoko bolatoki berria inauguratuko dugu»

IÑAKI TELLERIA BELAUNTZAKO ALKATEA
Duela aste batzuk hartu zuen alkate kargua; orain arteko proiektuekin jarraituko dutela dio // 4

«Biolentzia kapitalistari» aurre egiteko manifestazioa, hilaren 30ean

Kontseilu Sozialistak egin du deialdia 'Biolentzia kapitalistari, langile batasuna' lelopean; Tolosan batuko dira eta «muturreko biolentzia» salatuko dute // 6

Berrobiko liburutegian Altzoko herri aldizkaria irakurtzen. AGURTZANE BELAUNZARAN

Eskualdeko bost herritan argitaratzen dute urtekaria eta herritarrek ilusioz jasotzen dute urtero etxean herriko historiaren gordailua; azken bi hamarkadetan izan dute herri aldizkariek, loraldia

Herri txikietatik dator notizia

Agurtzane Belaunzaran

Talde lana, herrigintza eta euskara dute oinarrian. Urtekaria sortzeko motiboa guztien kasuan bera da; herrian gertatzen dena bildu, kontatu eta herriko dokumentu historiko gisa argitaratu, herritarrei beraiek protagonista diren pasarteak, euskaraz irakurtzeko aukera emanaz. Urtekariaren atzean galdera bera egon ohi da, *herrian gertatzen direnak zergatik jaso ez?* Edota *haiek egiten dute eta guk zergatik ez?* Bakoitzak historia propioa du eta kasu batzuetan bataren historia besteari loturik dago.

LIZARTZA

Lizartzako urtekaria da beteranoena eta herrian errekuperatu ziren inauteriei zor dio izana eta izena. Duela 27 urte argitaratu zuten lehen alea, *Lizartzako Inauteriak* izenarekin. Otsolar Dantza Taldea dago sorkuntzaren atzean, herriko helduenei inauteriei buruz zituzten bizipenak eta jakintzak kontatzeko eskatu eta guztia idatzita islatuta uzteko asmoz aldizkaritxo bat sortu zuten. 27 inauteri gehiago bizi izan dituzke harrezkero, zenbat dantza eta zenbat mozorro tartean, zenbat umore on. Inauterien bueltan argitaratzen dute eta aurreko urteko inauteri kontuak izaten dira nagusi bertan, herriko beste gai batzuk ere lantzen diren arren. Zuri-beltzean izan ziren lehen aleak, formatu txikian, orri gutxirekin, baina urteak aurrera joan ahala *Lizartzako Inauteriak* urtekariak kolorea hartu du eta izan dute zer kontatua orri kopurua ere handitu baitute.

ALTZO

Altzotarrek 23 urtez jaso dute urtekaria etxean. Kultura batzordeko kideei otu zitzaien aldizkari bat egiteko ideia, ez zuten Lizartzakoaren berri. Baina taldean, Ordiziako Jakintza ikastolako irakasle bat tartean zen eta han egiten zuten urtekariaren tankerakoa egin zitekeela pentsatu eta 1998. urtetik uztailean ikusten du argia Altzoko urtekariak. Aurreko urteko erreferentziak jasotzen ditu nagusiki eta hitz-joko modukoak egiten dituzte, azalean esanguratsua den argazkia eta esaldia jarriz eta bere jarraipena kontrazalean borobilduz.

BERROBI

Berrobiberrik pilota partida jokatu du, 22. alea argiratzear dute urteak amaiera jo baino lehen. Taldeko kide batek bazuen Oñatiko eta Altzoko urtekarien berri eta *Berrobin zergatik ez?* galdera luzatu zien herritar batzuei, 11 lagun bildu ziren bilera hartan. *Berrobiberri* izena jarri eta urte hauetan Berrobik eman du nahikoa berri eta urtekarian bildu dira hainbat pasarte. Hasiera batean Berrobiko jaien bueltan argitaratzen bazuten ere, Gabonen bueltan herritarrengana iristen dela, badira urte batzuk. Azken hamarkadan, urtekaria egutegiarekin batera banatzen dute eta hilabetero hausnartzeko tartea izaten da, mimo handiz aukeratutako poesiak izaten baitira irakurgai.

ALKIZA

Ordurako eskualdean, herri aldizkarien loraldia pil-pilean bazegoen ere, Alkizan ez zuten beste herrietako urtekarien erreferentziarik. Kulturan eta euskalgintzan lan egiteko gogoa zuten bost kide elkartu ziren, aldez aurretik hauetako batek botatako galderari erantzuteko, *Zergatik ez dugu herrian aldizkaritxo bat egiteko ahalegina egiten?* Baiezkoa eman zuten denek eta berehala erabaki zuten izena, alkizarren goitizena *oiloak* izanik, *Oilategitik* izena jarri zioten. Orduz gero, 21 urtetan zintzo-zintzo argitaratu da irailean, Alkizan gertatu direnak kontatuz.

BERASTEGI

Berastegikoa da eskualdeko urtekaririk gazteena. Berrobin argitaratu zen urtekariaren berri izan zuten, notizia berehala zabaldu zen errekan gora. Ordurako sortua zen kultur elkarteko kide batek aipatu omen zuen Berrobiko herri aldizkariarena eta *guk zergatik ez* galdera luzatu. Bizilaguna duten herriko urtekariko kideekin bildu eta urtekari bat egiteko nondik norakoen berri jaso zuten. Halaxe jaio zen 2004an *Aidanean*. Aurten 18. alea kaleratu dute adinez nagusitua, salontzoak aurretik jaso zuten berastegiarrek etxean eta kideek aipatu bezala «urte guzti hauetan izaera propioa hartzen joan da». *Aidanean* (Agidanean euskara batutik datorrena) izena eman zioten,

IRAGARKI LABURRAK

Alokagai

Etxebizitza. Etxebizitza bat alokatzen da Tolosako Alde Zaharrean kokatua. Altzariak ditu, eta guztiz hornituta dago. Interesatuak deitu dezatela ondorengo telefono zenbakietara: 677 000 005 edo 667 320 911.



Lizartzako Inauteriei buruzko urtekariko azala, Altzoko urtekariarena, Berrobiko 'Berrobiberri'ren azala, Alkizako 'Oilotegitik'ena eta Berastegiko 'Aidanen' urtekariko lehen orrialdea. ATARIA

berastegiarrek hitz hau erabiltzeko ohitura handia dutela eta.

EUSKARA ETA TALDE LANA

Talde lana da oinarrizkoa honelako aldizkari bati forma eman eta koordinatzeko. Bilera, eztabaida eta erabaki askoren ondoren mamitzen da urtekariaren hezurdura. Denak elkarrekin biltzea zaila izaten bada ere, asteburuetako agendan urtekarirako bilerarako tartea egiten duenik ere bada. Oraindik orain badira urtekariari sorrera eman zioten kideak lantaldeetan. Hasiera hartako amets hura gauzatu eta alez ale beren emaria ematen jarraitu dute fin-fin, taldekide berriak ere sartu dira urtekaria inprimategira eraman baino lehen haize berriak izango dituzten letraz eta irudiz betetzeko, beste kasu batzuetan, kolaborazio solteak egiteko eskatzen diete herritarrei eta horrek ere haizeberritu egiten du gai zerrenda eta ikuspegia.

Altzo, Berrobi eta Lizartzako lantaldeetan bada jende gaztea tartean. Altzoko azken urtekarian, hogei bat lagunek idatzi dute, herriko beste eragileei ere kolaboratzea eskatzen baitiete –eskola, udala, Elordi elkartea, talde feminista eta bertso eskola–. *Berrobiberri*n inkesta bat egin zen urtekarian zer aldatu edo gehituko zuten eskatuz eta bazen kolaboratzaileen atala eskatu zuenik eta hauei ere ateak ireki zaizkie. Alkizan, herriko argazkilarien laguntza izaten dute gertatua iruditan biltzeko eta bileretara lauzpabost agertzen badira ere, azken alean hamabi lagunek idatzi dute. Berastegiko lantaldean zazpi dira, urte hauetan izan dira kolaboratzera prestatu diren herritarrak ere eta guztien borondatea ongi etorria izaten da.

Euskara herritarrengana hurbiltzea izan da beste helburuetakoa, euskaraz irakurtzeko aukera eskuragarriago jarriz. Adin tarte ezberdinetako herritarrengana hurbildu eta bide batez baita euskara ez dakitenengana ere, beren burua aldizkarian ikusi ostean, modu batean behintzat, hizkuntzara hurbiltzeko saiakera ere badelako.

HERRITARRAK PROTAGONISTA

Ilusioz itxaroten dute herritarrek urtekaria eta data gerturatu ahala galdezka hasten n*oiz atera behar duzue aldizkaria?*. Etxez-etxe banatzen dira, doan. Jasotzean, beraien buruak eta esandakoak bilatzen dituzte lehenengo, edo familiakoren baten argazkia edo esana, edo bizilagunena. Dena da ezagun urtekarian, dena gertuko. Historiarik txikienek ere lekukoa hartzen dute eta pertsonaiarik ezezagunek ere ahotsa. Nekez esaten dute ezezkoa, herri aldizkarirako argazki batean atera behar dutela esatean edo beraien historia, beraien bizipenak kontatu nahi direla proposatzean.

Urduritasun puntu batekin eta irrifar txiki batekin jasotzen dute urtekaria, batzuetan gainera *bazen garaia* esan aldizkaria eskuan hartu eta ixten dute atea. Bada ere *emaizkidazu ale gehiago* erregutzen duenik ere, kanpoan bizi den ahizpa, anaia, semealaba edo lagun kuttunei bidali edo gordetzeko. Egun, urtekari gehienek, Interneteko euskarrian alea lortzeko aukera ematen dute udaletako webguneen bidez, baina paperean jasotzea nahiago izaten dute.

Etxeko egongelan edo sukaldeko mahaian lekua hartzen du urtekariak hilabete luzez, gero hemendik apalategira edo beste urteetako aleekin batera gordeko da kaxa batean. Etxe askotan errepikatzen da fenomeno hau eta halako edo holako noiz jaio zen, hil zen, edo auskalo zer zein urtetan gertatu zen jakiteko askotan ireki dira kaxa hauek eta miatu urtekariko ale ezberdinak. Herritarrek ilusioz esaten dute *ale guztiak ditut gordeak etxean*, herriko artxibo historikoaren jabe direnaren pozarekin. Herriko jatetxe eta tabernetan ere irakurgai izaten dira, herrian gertatzen den hori kanpotik datozenek jakin dezaten.

Badira elkarrekin harremana duten kultur elkarteak eta urtekaria argitaratzean elkarri bidaltzen diote. Berrobiko liburutegian esaterako, Berastegi eta Altzoko urtekariak daude irakurgai. Aurten ezagutu dute bostek elkar Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru laguntza batzuk medio eta elkarrekin harremana sendotzeko nahia azaldu dute.

GAIAK SORTZEN DIRA

Mila biztanleez beherako herriak izanagatik sortzen dira idazteko gaiak. «Bizirik dagoen herri batean beti dago zer kontatua», diote altzotarrek. Urtekariaren helburu bat horixe da, herriko bizitzaren isla izatea. Gaiak hortxe daude, erreparatu, pentsatu eta idaztea da kontua.

Bost aldizkariak erreparatuz gero, badira gai nagusia jorratzen dutenak eta urtekarian presentzia gehiago dutenak. Lizartzakoan, aipatu bezala, Inauteriak dira gai zentrala eta Berrobin, 1950-1960 tartean, emakumeek papergintzaren industrian egin zuten lanaz hitz egingo da. Alkizan azala eta kontrazala adostu ostean, gaiak idaztea nahiko librea izaten da eta herrian aldizkako kolaboratzaile sorta badute horretarako. Altzokoan ez dute gai zentralik, azalak eta kontrazalak dute mezu edo gertakari baten hasiera eta amaiera. Berastegin ere urtean gertatzen eta antolatzen direnak biltzen izaten dute lana, garai bateko pasarteek eta argazki zaharrek ere badute tokia, nostalgia kutsua. Azken urteetan, berastegiarrak *Munduan* atala dute eta herritarren bizipenak eta esperientziak kontatzen dira. Gaiak sortzen direla zalantzarik ez dago, urteroko orri kopurua goraka joan baita denetan.

Urtekari batek, idatziko duen jendea, irakurriko duena eta finantzatuko duena behar izaten du. Horretarako publizitatea eta diru laguntzak ezinbestekoak izaten dira urtekariak arnasa ziurtatua eduki dezan. Herrietako denda, negozio txiki eta handiei zor zaie neurri handi batean urtekari hauen existentzia, baita diru laguntzetik etortzen denari ere.

Izan dira urte garai oparotsuak, baita malkartsuagoak ere, baina aurrera ateratzeko adina izan da eta urte luzez tokian tokiko urtekariek argia ikusten jarraitzeko itxaropena dute.

Hilberriak eta urteurrenak

hilberriak • eskertzak • urteurrenak

ataria n jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!
TXIKIA (82mm X 64mm): 110€ • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 64mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 60 € • Harpidedunentzat 30 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu

Juan Angel Olarte Ugarteburu
'Troka'

Aizkorriko elurrak eta Zegamako euriak eraman zaituzte.
Zuk emandakoa gurekin gelditzen da

Segurako Udala

SEGURAn, 2021eko abenduaren 9a

Bihar eman ahalko da izena Olentzaroren ibilbidean

AMASA-VILLABONA // Amasa-Villabonako haurrek Olentzaroren ibilbidea egiteko aukera izango dute abenduaren 18an. Izenematea bihar izango da, hilak 10, Zunbeltz elkartean, 16:30etik 19:00etara artean egin beharko dute 2013 eta 2019 urteen artean jaiotako haurrek. Ibilbidean, kriseiluaren argipean, garai bateko usadioak, sinesmenak eta kontuak berreskuratuko dituzte.

Larrondoko larreetara ganadua eramateko izena ematea

AMEZKETA // Amezketako Udalak bihar irekiko du Larrondoko larreetara ganadua eraman nahi dutenek izena emateko epea. Izena udaletxean eman beharko da, eta azken eguna hilaren 30a izango da. Nahiz eta ganadua udazkenean larreratu, izena orain eman behar da. Behiak, ahuntzak eta ardiak maiatzaren 1etik 2023ko martxoaren 31ra bitartean larreratuko dira, eta behorrak eta zaldiak urriaren 12tik 2023ko martxoaren 31ra.

Hezkuntza sexu-afektiboari buruzko tailerra, larunbatean

ORENDAIN // Hezkuntza sexu-afektiboari buruzko tailerra izango da larunbatean 11:00etatik aurrera, kultur etxean. Gazteen osasun sexuala sustatzen laguntzeko tailerra izango da eta deskonexio enpatikoaren eta sexu indarkeriaren egungo dinamikak gainditzen laguntzea izango du helburu. Gurasoei, irakasleei eta publiko orokorrari zuzenduta dago. Aurrez ez da izena eman behar, eta aforoa bete arte sartu ahal izango da.

ASIER IMAZ

«Izen aldaketa soila izan da, orain arteko proiektuekin jarraituko dugu»

IÑAKI TELLERIA
BELAUNTZAKO ALKATEA

Ez da hilabete ere alkate kargua hartu zuela Iñaki Telleriak. Bi urte egingo ditu karguan eta aurreko urteetan udalbatzak egindako lanarekin jarraituko duela esan du.

Asier Imaz Belauntza

Silvia Moneoren lekua hartu du Iñaki Telleriak, eta Belauntzako alkatea izango da legealdia bukatu bitarte. «Datozen bi urteetan abian ditugun proiektuekin jarraitzea da nire helburua», esan du.

Nola hartu zenuen alkate izateko erabakia?

Silviak [Moneo] kontu pertsonalak medio ezin du jarraitu eta zerrendan ni naizenez hurrengoa, niri egokitu zait egitekoa.

Eta nolakoa izan zen lehen egun hori?

Esango nuke lehen egunak direla errazenak. Kokatzen ari naiz, informazioa biltzen, eta pentsatzen dut geroz eta gehiago jakin, geroz eta lan gehiago izango dudala. Baina badaukat laguntza, bai Silviak eta baita taldeko beste kideek ere asko laguntzen didate, eta asko eskertzen dut. Orain denbora gutxi dut, eta zailena biltzeko eta hitz egiteko tartea hartzea da, joango naiz pixkanaka martxa hartzen.

Orain arteko proiektuekin jarraituko duzue?

Izen aldaketa soila izango dela esan beharra daukat, orain arteko proiektuekin jarraituko dugulako. Eskola zegoen tokian etxebizitzak egingo ditugu, duplex moduak izango dira, eta orain hasiko dira obrak. Eta ostatuaren inguruan, futbol zelaiaren ondoan, hamar etxebizitzetako beste proiektu bat dugu eskuartean, oso proiektu polita da. Interesa dutenek udaletxean jaso dezakete informazio gehiago.

Bizia emango diote herriari. Hori da helburua ezta?

Gure nahia hori da, herriari bizia ematea. Herri txikietan ez da erraza, baina horretan ari gara, gure lana eragitea da. Zentzu horretan badugu beste proiektu bat eskuartean. Izan ere, bolo eta toka federazioarekin hitz egiten ari gara eta aurrerantzean euren egoitza hemen egongo da. Horri lotuta dago igandeko ekitaldia ere. Igandean futbol zelaiaren ondoko bolatoki berria inauguratuko dugu eta lehen bola tiraldi ofiziala egingo dugu.

Boloetarako ohitura dago Belauntzan?

Ohitura handia dago herrian. Udaletxearen ondoan zegoen lehen bolatokia, baina euria dela eta, ez zegoen egoera onean. Berria egin dugu futbol zelaiaren ondoan, eta ohiturarekin jarraitzeko aukera eman nahi dugu, horregatik egin dugu apustua.

Herriko ostatua da herriari bizia ematen laguntzen den beste elementuetako bat, nola doa Belauntzakoa?

Ez da erraza irekita mantentzea, baina horretan ari gara, saiakera egiten ari gara. Orain irekita dago, oso txukun ari dira lanean, eta oso gustura daude.

Eta zein proiektu gehiago dituzue?

Energia berriztagarrien inguruko lanketa egiten ari gara, herritarrei ahal den zerbitzu egokiena eman ahal izateko. Gasolina hornigailu bat jarri nahi dugu ere Garbigunean, batez ere traktore txikiak hornitu ahal izateko. Eta frontoiari bizia eman nahi diogu ere. Azpiegitura ona dugu herrian eta probetxua atera nahi diogu, horretan ari gara, pilota partidak ekarri nahi ditugu herrira, giroa sortzeko.

Helburua beteta, kanpalekuetan

Tindufeko Errefuxiatuen Kanpalekuetatik
Irati Saizar Artola
Kazetaria

Iritsi gara kanpalekuetara, 800 kilometro egin eta gero. Bakoitza bere familietan da dagoeneko eta lan asko ditugu aurretik egiteko.

Azkenean herenegun iritsi ginen kanpamentuetara, berandu, oso berandu, baina pozik, helburua lortu genuelako. Pare bat kontrol pasa behar izan genituen eta 03:30ak aldera iritsi ginen Auserdera, kanpaleku batera.

Autobusa hartu eta beste leku batean jaitsi ginen. Han genituen zain hainbat familia, beraien etxeetan gaua pasatzeko. Leher eginda iritsi ginen, 06:00etatik errepidera aterata generamalako eguna. Baina, hala ere, familiek mokadua prestatuta zuten etxean, eta tripa beteta lokartu ginen gehienok.

Goizean, ibilgailuetan genituen pakete eta poltsak ordenatzen aritu gara. Eta gure sorpresarako, Omar Mansur barne ministroa eta Cheekh Lehbib Mohamed Auserdeko gobernadorearen bisita izan dugu. Ongi etorria egin digute eta esker oneko hitzak besterik ez dituzte izan guretzat.

Etorri garen taldeko kideak kanpaleku ezberdinetan pasatuko ditugu datozen egunak, eta bakoitzak bere materiala hartuta etxerako bidea hartu dugu. Gure kasuan, Smarara etorri gara, eta lan asko dugu egiteko. Oporrak Bakean programako haurrei poltsak emango dizkiegu, ea zer moduzko harrera egiten diguten.

Tolosako Udalak babestutako bidaia
Bidaiaren informazio eta irudi guztiak hemen

Manifestazioa egingo du Kontseilu Sozialistak abenduaren 30ean

Tolosako Trianguloa plazatik abiatuta, 'Biolentzia kapitalistari, langile batasuna' lelopean egingo dute; borroka sozialistara batzea «aukera bakarra» dela diote

Manifestazioa iragartzeko agerraldia egin zuten atzo Berdura plazan. J.M.

Jon Miranda Tolosa

Tolosaldeko Kontseilu Sozialistak manifestazioa egingo du abenduaren 30ean, «miseria kapitalistak» sortzen dituen egoera guztiak salatu eta «biolentzia kapitalistaren aurka borrokatzeak merezi duela lau haizetara zabaltzeko». Manifestazioa, Tolosako Trianguloa plazatik 19:00etan abiatuko da *Biolentzia kapitalistari, langile batasuna* lelopean.

2021. urtea langileriarentzat ez dela «gozoa» izan esan dute Kontseilu Sozialistako kideek eta horri berresteko datuak eman dituzte: «Urtea hasi zenetik, soldatapeko lanaren ondorioz 59 langilek galdu dute bizia Euskal Herrian. Bost emakume erail dituzte indarkeria matxistaren ondorioz. Zazpi pertsona hil dira Ipar eta Hego Euskal Herriaren arteko muga zeharkatu nahian». Hiru datu hauetan jarri dute azpimarra, egungo egoeraren «krudelkeria» ilustratzeko.

Kontseilu Sozialistako kideen iritzian aipatutako adibideek «muturreko biolentziaren» izebergaren punta baino ez dira, euren ustez, oinarri-oinarritik biolentoa den gizarte eredu baten isla. «Aurrerabideaz urte luzetan hitz egin izan diguten arren, sistema kapitalistan zapalduekiko biolentzia behin eta berriz errepikatzen da».

Are gehiago, antolamendu sozialistaren ustez, langileriaren aurkako erasoak ugaritzen ari dira krisialdiak ezaugarritutako agertokian: «Geroz eta zailagoa zaienez etekin ekonomikoa lortzea, orduan eta langile eredu otzanagoa behar dute, hala nola, lan prekarioak onartzen dituena, interes unibertsalen alde antolatzen ez dena, edota kideak defendatzen ez dituena». Norabide horretan eman diren urratsen adibidetzat jo dute pandemiaren «kudeaketa poliziala», plataforma digitalen bidez aurrera eramaten den «interbentzio kulturala», edota azken urteetan kontrol sozialean eman diren pausoak. «Horrekin guztiarekin, gertakaririk larrienarekin ere erreakzionatzen ez duen langileria hezteko saiakeran dihardute».

Langileriaren aurkako ofentsiba horretara batu dira, Kontseilu Sozialistaren ustez, ezkerreko alderdi guztiak, «pandemiari aterabide poliziala ematea adostuz, eta besteak beste, poliziaren soldatak igotzen dituen aurrekontuak onartuz».

KALERA ATERATZEKO DEIA

Abenduaren 30ean Tolosan egingo du manifestazioa Kontseilu Sozialistak, «biolentzia kapitalistari aurre egiteko». Militante sozialistek kalera ateratzeko, «hutsaren hurrengoa ez garela aldarrikatzeko», inoiz baino premia handiagoa dagoela esan dute. Aldi berean, norabide komunistan indarra egingo duen antolakuntza «eraginkorra» sortu beharrean daudela aitortu dute.

«Langileria askatasun unibertsalaren aldeko borroka sozialistara batzea ez da aukera bat gehiago, aukera bakarra baizik». Aldarri hori eginez amaitu du Kontseilu Sozialistak manifestaziorako deia egiteko agerraldia.

GUTUNA

Hiltzeko beldurrez bizi ezin diren herritarren istorioa

Etxean konfinatuta dauden seme-alaben ama bat naiz. Pandemia hasi zenetik hirugarren konfinamendua gurea. Duela astebetetik aztarnariaren deiaren zain gaude, haurren txertaketaren atarian fidatzen ez naizen PCR bat egiteko zita noiz emango. Eta nire burua galderaz betea, geroz eta gehiago haserrarazten nauten mila galdera buruan bueltaka. Zenbat pertsona ezagutzen duzue COVID-19arekin hil dena? Eta zenbat minbiziaz? Gripea nora joan da? Gobernuak ez al du nahikoa diru ZIUak eta osasun langileen kopurua handitzeko? Arakatzaile gehiago jartzeko?

Herrialde boteretsuenak txertoekin egiten ari diren geopolitika ikusita, gaur egun bizitzeko behar ditugun oinarrizko sostenguen prezioen gorakada... Non daude orain arte gobernu eta multinazionalen aurka, injustizien aurka borrokatu diren euskal borrokalariak?

Ni ez naiz txertatu. Ez da erraza hori esatea gaur egun. Ez naiz txertatu ez naizelako sei hilabetetan sortutako txerto batez fio. Eta nahiz eta ez naizen txertatu eskubidea dut gaixotzeko. Eskubidea dut gripea, COVID-19a edo katarroa harrapatzeko. Eta eskubide osoa dut nik ere ordaintzen dudan osasun-sarearen parte izateko. Bularretako minbizia duen erretzaile batek duen bezalaxe, eskiatzera joan eta hanka hautsi duen mendizaleak bezalaxe. Gaur etxean nago, agian bihar edo etzi deituko digun aztarnariaren zain, etxetik ateratzeko «beldurrez» ondokoak zer esango ote duen.

Bitartean denbora aurrera doa eta gure seme-alabek maskara jantzita jolastu eta ikasi behar dute eskolan, beldurrez sentitu behar dituzte aitona-amonak Eguberritan eta itxuraz babesten gaituen txerto batek gizartea nola banatzen duen bizi behar dute. Hauxe da XXI. mendean hiltzeko beldurrez bizi ezin diren herritarren istorioa.

Noiz arte?

Idurre Aramendi
Tolosa

Josu Artola amezketarra podiumeko lehen postuan, Espainiako Kopako irabazi ostean, garaipena ospatzen. ATARIA

Josu Artolak irabazi du hard enduroko Espainiako Kopa

Oviedoko azken lasterketan laugarren postuan amaitu arren, amezketarrak senior mailako Espainiako Kopa irabazi du; Alberto Aranburuk bosgarren amaitu du

Eneritz Maiz Etxarri

Hard enduroko Espainiako Kopa irabazi du Josu Artola amezketarrak. Asteburuan Oviedon (Asturias) jokatu da txapelketako azken proba, eta laugarren postuan sailkatu bazen ere, Espainiako Kopa poltsikoratu du Artolak. Alberto Aranburu ere lehia horretan ibili da; Oviedoko lasterketan bigarren egin zuen tolosarrak eta txapelketa bosgarren postuan amaitu du.

Asturiasko probara, lasterketa bera baino txapelketa buruan zuela joan zela aitortu du Josu Artola amezketarrak: «Kopa nahiko ziurtatua nuen. Zortzigarren postua nahikoa nuen irabazteko, eta hori ziurtatzera joan nintzen». «Eguraldi oso txarra zegoen, lokatz asko, baina hemengo lokatzarekin alderatuta ezberdina da. Harri asko zegoen tartean», dio.

Arrisku handirik hartu gabe egin zuen lasterketa, nahiz eta, «aurreneko bueltan lehen postuan ere jarri nintzen, baina gero eroriko bat izan nuen, eta bik pasa egin ninduten». Hiru-laugarren postuetan jarri zen erori eta gero, eta «hor nahiko eroso nindoan, eta hor ondo mantendu nintekeela ikusi nuen. Azkenean laugarren postua eginda, oso gustura», argitu du Artolak. «Momentu batean lasterketako podiuma ere buruan izan nuen, baina txapelketa ziurtatzera joan nahi nuen, eta ez nuen arriskatzeko gogorik izan», esan du.

Denboraldi hasieran ez zuen honelakorik espero, eta ezusteko «handia» izan dela kontatu du. «Podium bat edo beste egin ahal izatea espero nuen, eta aurrean ibiltzea, baina egia esanda irabazteko aukera gutxi ikusten nituen. Ezinezkoa ez, baina aukera gutxi».

«HAU LATZA DA, HANDIA»

Lehen aldiz irabazi du senior mailako Hard Enduroko Espainiako Kopa: «Niretzako hau latza da, handia». «Egia esan txapelketa honetan pilotu onak izandakoak-eta badira, eta horien gainetik geratzea handia da niretzat». Hala eta guztiz ere, «nahiz eta honelako txapelketa batean parte hartu, eta zeure buruari presio pixka bat sartuagatik ere, niretzat hau afizio bat da», dio Artolak.

Behin txapelketa irabazi eta aurrera begirakoaz galdetuta argi du amezketarrak: «Mundu hau oso zaila da, eta ez dut uste inongo aterik zabalduko denik. Honen gainetik dagoena Munduko Txapelketa da».

Aurtengo denboraldia bukatutzat ematen du Artolak, eta hurrengo urtera begira ez duela ezer pentsatuta aitortu du. Hori bai, «lasaiago hartzea pentsatzen dut». Aurten, Munduko Txapelketako bi karreretan lehiatu da Artola, eta «hurrengo urtean ez dut Errumania aldera-eta joateko asmorik». Gainera, «nekatu egiten du honek, eta ordu asko kentzen ditu; bai motorra prestatzeak eta baita entrenatzeak ere. Eta gastu asko ditu. Erritmoa jaisteko asmoa dut hurrengo urterako». Ez dute ezer jasotzen, eta «dena gastua da», dio. «Lagun arte polita dugu eta ondo pasatzen dugu, eta horregatik ibiltzen gara azken batean». Afizioa izan arren, ordea, txapelketa batean sartzean, «helburuak jartzen dizkiozu zeure buruari, eta presioa sartzen diozu».

ELUSTONDO ETA MURUA

Hard enduron, baino maila bat beherago, trofeo mailan, hain justu, eskualdeko pilotuak ere aritu dira lehian, eta azkenean, senior mailan sailkapen orokorrean hirugarren postuan amaitu du Andoni Elustondo tolosarrak, eta junior mailan ere podiuma egin zuen Aritz Murua abaltzisketarrak, hirugarren postuan amaituz.

Gabonetako Pilota Topaketan izena emateko azken eguna

Alegia, Altzo, Amezketa eta Ikaztegietako guraso elkarteek eta Intxurre Pilota Eskolak Gabonetako Pilota Topaketa antolatu dute

E. Maiz

Intxurre Pilota Eskolak martxan jarria du XIX. Gabonetako Pilota Topaketa, Alegia, Altzo, Amezketa eta Ikaztegietako guraso elkarteen laguntzarekin. Abaltzisketako, Alegiako, Altzoko, Amezketako eta Ikaztegietako eskoletan banatu dute izena emateko deialdia, eta baita Alegiako Aralar Institutuan ere. Ikastetxeetan banatutako orrien bidez egin beharko da izen ematea, eta bihar bukatzen da epea.

Ikastetxeetan egingo dute izen emateen bilketa. Hala eta guztiz ere, norbaitek izen emate orria beharko balu edo zalantzaren bat argitzea nahiko balu *udakopelotaeskola2021@gmail.com* helbide elektronikora idatzi dezake. Partaideek banaka eman behar dute izena, eta antolatzaileek egingo dituzte bikoteak, dagokien adin mailetan banatuta.

6 eta 15 urte bitartekoek –2006-2015 bitartean jaioak–, biak barne, eman dezakete izena. Prebenjamin, benjamin, alebin, infantil, infantil/kadete neskak eta kadete mutilak dira banatuko dituztenak. Nesken kasuan, eskuz, infantilak eta kadeteak elkarrekin jarriko dituzte. Eta, eskuz, pilota goxoekin jokatuko dute.

FINALAK, AMEZKETAN

Topaketaren egunak ere aurreratu ditu Intxurre eskolak. Sailkapenak, abenduaren 27an eta 28an jokatuko dira; hori bai, herriak eta orduak, izen ematearen arabera zehaztuko dituzte, eta hilaren 17an, ostiralean, emango dituzte ezagutzera bai bikoteak eta baita egutegia ere.

Finalak Amezketako pilotalekuan jokatuko dira, hilaren 30ean, ostegun arratsaldez. Ondoren, sari banaketa egingo dute, eta bertaratzen direnentzat merienda banatuko dute.

Athletic 1, Tolosa 1

Aulkitik
Alaitz Varela
Tolosa CF, 1. Maila Nazionala

Partida 17:00etan zenez Lezaman, eguerdian atera ginen Tolosatik. Athletic bezalako talde baten aurka jokatzean badakizu partida gogorra eta zaila izango dela, dena emateaz gain, askotan zortea ere behar da.

Hasieratik sendo atera ginen zelaira, defentsiboki ondo kokatuta ginen, eta horrek aukerak sortzea ahalbidetzen zigun. Eta halaxe heldu zen gola, kontraeraso batean, area barrura zihoan erdiraketa baten ondorioz, buruz baloia urruntzeko asmoz burututako jokaldi batean, beraien atean sartu zuten gola. 1-0ekoa markagailuan eskegiz iritsi ginen atsedenaldira.

Bigarren zatian, euria eteteak jokoa azkartzea ekarri zuen Athleticen mesederako. Bi taldeon rolak aldatuz, beraiena izan zen baloiaren jabetza. Nahiz eta kontraeraso batzuetan arnasa hartzea lortzen genuen. Beraien intentsitate altuari eustea gogorra egiten ari zitzaigun. Korner batetik heldu zen beraien gola, jokaldi polemikoa, gure atezaina eskuekin baloia urruntzera atera eta kolpe baten ondorioz lurrean amaitu baitzuen. Hala eta guztiz ere, epaileak gola zela adierazi eta 1-1 jartzea ahalbidetu zuen.

Azkenengo minutuak, sufrimenduaren gailurra izan ziren, baina gogor helduz, emaitzari eusten dakigula erakutsi genuen. Esfortzuaren saria etxera ekarriz, puntu bat eta hurrengo partidaren bila joateko prest agertuz.

OSTEGUNA, 2021EKO ABENDUAK 9
Argitaratzailea: Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022. villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetaldea: 687 410 022. anoetaldea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 11 32. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46

Ataria.eus

ATARIA IRRATIA 107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:
Tolosaldeko gizarte eragileak

Gabonetako azoka eta jostailuen truke azoka, larunbatean

Zizurkilgo Joxe Arregi plazan egingo dituzte bi azokak goizean zehar; Eguberriak gerturatzen ari diren honetan, jostailu bilketak egingo dituzte hainbat herritan, baita Amarotzen ere

Erredakzioa Zizurkil-Tolosa

Abenduaren 11n Gabonetako azoka berezia egingo dute Joxe Arregi plazako estalpean 10:00etatik 14:00etara. Herriko eta bailarako artisau eta ekoizleen postuak ezagutzeko aukera izango dute bertaratutakoek, eta baita, bide batez, Eguberrietako erosketak bertan egitekoa ere.

Gabonetako azokaz gain, jostailuen truke azoka ere egingo dute Joxe Arregi plazan bertan, larunbatean, goizean zehar. Bizi ditugun garaiak eta etxeetan pilatzen diren jostailuak kontuan hartuta antolatu du udalak jostailuen trukerako azoka. «Bakoitzak armairuan gordeta dituen jostailuak beste etxe batean jostailu berriak izan daitezke», esan dute udal arduradunek. Horretarako oinarri batzuk jarri dituzte.

2011n egin zuten Zizurkilen lehen aldiz, Truke Azoka. ATARIA

ADIN GUZTIETARAKO

Ezaugarri eta adin guztietako haurrentzat jostailu, joko eta ipuinak izango dira azokara eraman beharrekoak. Egoera ona izan beharko dute, jostailuek osorik egon beharko dute, puskatu gabe, eta mekanismoak dauzkaten jostailuek funtzionatu egin beharko dute. Indarkeria eta sexu desberdintasuna sustatzen duten jostailuak ez dituzte onartuio. Jostailuak garbi eta desinfektatuta eraman beharko dira. Jostailu edo jokoren bat eramaten duenak, beste bat hartzeko eskubidea izango du, eramango jostailuaren truke txartel bat jasoko du eta txartel horrekin beste jostailu bat hartzeko eskubidea izango du. Haur bakoitzak gehienez hiru jostailu, joko edo ipuin eraman ditzake eta beste hainbeste jostailu, joko edo ipuin hartu. Haur batek baino gehiagok jostailu berdina hartu nahi badu, interesatuen artean zozketa egingo da. Truke azoka honetan ez da dirurik onartuko eta trukearen bidez egingo dira egin beharreko aldaketa guztiak. Jostailuak Zizurkilgo udal bulego eta liburutegian utzi beharko dira, gaur eta bihar artean.

AMAROTZ AUZOA

Tolosako Amarotz auzoan jostailuak bilduko dituzte ere, «Gabonetan haur guztiek opariak eduki ditzaten», esan dute auzo elkarteko kideek.

Txoko-Txikik antolatu du bilketa, Gautena elkarteari laguntza eskainiz, eta jostailuak gaur eta bihar 17:30etik 19:30era eta larunbatean 10:00etatik 12:00etara utzi ahalko dira Amarozko auzo etxean.

OSTEGUNA 09

AGENDA

Deialdiak

Tolosa. Euskal Herriko historiaz ariko da Fernando Rojo Tolos historialaria 19:00etan, Lizardi elkartean.
Berastegi. Mikromatxismoaren inguruan jasotako gogoeta edo testigantzak landuko dituzte Sortzen aholkularitzaren eskutik 18:30ean, udaletxeko batzar aretoan.
Ikaztegieta. Kattalin Minerrek gidatuta, *Dendaostekoak* liburua aztertuko dute 18:30ean, liburutegian.

Zinema

Tolosa. *Quién lo impide* zine forumaren barruan 20:30ean, Leidor zineman.

Erakusketak

Tolosa. Txaro Marañon eta Charo Cimasen erakusketa: *Planeta lorategia. Planeta infernua* eta *EMAKUMEArtean* Aranburu jauregian.
Tolosa. Biniloko disken eta txotxongiloen erakusketa, eta paperezko antzerkiari buruzkoa Topic zentroan.
Tolosa. Mikel Garmendia Uranga, alegiarraren pintura erakusketa 3 tabernan.
Berrobi. *Herria* argazki erakusketa udaletxean.
Alkiza. *Hitzak zaindari* erakusketa ibiltaria Fagus Alkiza zentroan.

28 KANALA

08:00. 1, 2, 3 hemen da Miru!
09:30. Gaurkoan Tolosaldetik
15:00. Elkarrizkettap
17:30. Gaurkoan Tolosaldetik
21:30. Gaurkoan Tolosaldetik
22:00. BaDa!

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Cecilia Bronte Posada. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13
TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi kalea, 6. 943 67 51 18

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Egun osoan zerua erabat estalirik egongo da eta euria izango dugu. Zaparradak sarri eta mardul botako ditu, litro asko pilatuko zaizkigularik. Ipar-mendebaldeko haizea zakar ibiliko da eta tenperatura zertxobait igoko da, 10-11 graduan joaz goia. Elur-maila goizean goiz 800 metrotan kokatuko da, baina goiz erditik aurrera nabarmen gora egingo du.

Bihar. Egun guztian zehar hodeiek zerua estaliko dute eta euria utziko dute. Zaparradak mardulak izango dira eta ia etengabe egingo du. Ipar-mendebaldeko haizeak zakar edo oso zakar joko du eta tenperaturak beste koskatxo bat egingo du gora, 11-12 graduan joaz goia.

TOLOSALDEKO ATARIAk ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.